




Proiektu zbk.: 2016/1
Enpresa: **EiTB**

Jazarpen kasuetako protokoloa. Counselling eta esku-hartze psikologikoa

Helburua eta aurkezpena: 2016an batzordean onetsitako jazarpen moral eta sexualerako protokoloak finkatzen du kaltetuei laguntza eman behar zaiela. Kabinete psikologiko batekin egindako akordioak aukera ematen du era askotako arrazoen ondoriozko jazarpen-egoeretan -jazarpen sexuala, jazarpen sexista edo alkohola edatearen ondoriozkoa- esku hartzeko, egoera horiek konpon daitezzen. Bestetik, Osasun Zerbitzuko kideei aholkularitza psikologikoa (Counselling) emateak bide ematen du kasu berriak hautemateko, une oro isilpekotasuna behar bezala bermatuta, komunikazio eraginkorra bultzatuta, eta erabakiak hartzeko eta emozioak kudeatzeko modua hobetuta.



Prozesuaren deskribapena: sortu zenetik ezartzea, 2015ean hautemandako lehen kasua izan zenetik jardutea, prebentzioko ordezkariak komunikatzea eta Osasun Zerbitzuari jakinaraztea. Gero, kanpoko kabinete psikologiko baten esku uztea, kaltetutako pertsonen elkarrizketak egitea (banaka eta/edo multzoka), neurriak finkatzea, eta, azkenik, jarraipen-bilerak egitea.

Egindako hobekuntzak: Osasun Zerbitzuko kide bati Counselling alorreko prestakuntza ematea (OHSAS auditoretzak indargunetzat jo baitzuen), eta kanpoko kabinete psikologikoarekin lortutako akordioa, dena kaltetutako pertsonen isilpekotasuna bermatuta.

Bereizgarriak: Osasun Zerbitzuko kide bati Counselling alorreko prestakuntza ematea eta kanpoko kabinete psikologikoaren laguntza.

Lortutako emaitzak: 2015ean hautemandako kasu bakarra. Jazarpen-protokoloaren jarraipena, lehenik Osasun Zerbitzuak eta gero kanpoko kabinete psikologikoak esku hartuta. Gatazka modu onuragarrian konpontzea. Lehen jarduera horren ondoren, eta modu onuragarrian konpondu zenez, kasu gehiago hauteman dira, eta konpontzeko bidean daude.